

ahoa bete hots hizlarien aurkezpenak

Luis Mari Larringan (EHU) eta Arantza Ozaeta (MU-HUHEZI)

Luis Mari Larringan Arantzabal, euskal filologian doktore, hainbat arlotan egin du ikerketa eta ekarpena, besteren artean: hizkuntzaren jabekuntzan, hizkuntzaren didaktikan, testuen eta diskurtsoaren analisisian. Itziar Idiazabalek zuzentzen duen HIJE ikertaldeko kide da (EHU).

Arantza Ozaeta Elortza, euskal filologian doktore, Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko irakasle. Hizkuntzaren didaktikan eta testuen analisisian jardun da. Matilde Sainzek zuzentzen duen Miker ikertaldeko kide da (Mondragon Unibertsitatea), baita HIJE taldeko kide ere.

Julia Marin (Itzulidatz)

Julia Marin Arteaga, Antzerki ikuskizun ugartan parte hartu du itzultzaile eta zuzendari laguntzaile moduan: *Mephisto* (Klaus Mann), *Xolak badu lehoien berri* (Bernardo Atxaga), *Anarkista baten ezusteko heriotza* (Dario Fo), *Eskola hutsik* (Tahar Ben Jelloun), *Artea* (Yasmina Reza), *Lapur-zuloa* (Stephen Adly Guirgis), *Karabas* (Golden Appel Quartet eta Kanpingags), *Hor al zaude?* (Javier Daulte), *Grönholm metodoa* (Jordi Galceran), *Ilunpetan* (Peter Shaffer), *Ahuntza edo nor da Silvia* (Edward Albee), *Presidente andreak* (Werner Schwab)...

1995ean ekin zion euskararen ahoskera ezaugarriak ikertzeari. Eta harrezkerotik arlo askotako profesionalekin dabil ahozko lantzen: irakasleak, kazetariak, esatariak, aurkezleak, aktoreak, hizlariak... Testuen interpretazioa euskaraz gaia irakasten du Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean, eta Idazkuntza-teknikak Itzulidatz lan-taldearekin.

Asier Larrinaga (EITB)

Asier Larrinaga Larrinaga (Bilbao, 1965) Zientzietan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean 1983-84 eta 1987-88 arteko ikasturteetan. 1993-94 eta 1996-97 arteko ikasturteetan Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Egun, doktore-tesia prestatzen ari da, telebista eta hizkuntza-normalizazioa gaiari buruz, Igone Zabala Unzalu eta Agurtzane Elordui Urkiza doktoreek zuzenduta.

1991an hizkuntzalari-postua atera zuen oposizioz Euskal Telebistan, eta 1998an Euskara Zerbitzuko arduradun izendatu zuen EITBko zuzendari nagusiak. Harrezkero zeregin horretan dihardu, eta aldian-aldian hizkuntza eta hedabideak uztartzen dituzten jardunaldietan eta ikastaroetan hartzen du parte. Hainbat artikulu idatzi ditu gai berari buruz.

Joxerra Garzia (EHUko irakaslea)

Joxerra Garzia Garmendia (Legazpi, 1953)

EHUko irakasle titularra, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitate Sailean (1994az geroztik). Filosofian eta Kazetaritzan lizentziatua (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan); Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Publizitatean doktore (EHUn), gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoei buruzko tesiarekin (1999).

Lehenago, Hitzetik Hortzera ETBko bertso programaren sortzaile, zuzendari eta aurkezle (1988-1994), eta Euskadi Irratian (1983-1988) bertsolaritza eta kulturaren alorrean. Literaturan, poesia, saiakera eta narratiba landu ditu, eta hainbat sari eskuratu (Irun Hiria, Donostia Hiria, Baporea...). Hainbat aholku batzordetako kide izana, une honetan Kulturaren Aholku Batzordeko kide (Eusko Jaurlaritza), baita Donostiako Euskararen Aholku Batzordekoa ere. 2009an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Abadia Saria, euskararen alde hainbat alorretan egindako lanarengatik.

Argitalpen aipagarri batzuk:

- ✓ 2008, *Jendaurrean Hizlari. (Ahozko) Komunikazio Gaitasuna Lantzeko eskuliburua*, Irun, Alberdania.
- ✓ 2007, “Basque Oral Ecology”, *Oral Tradition-22-Number 2* (Special Basque Issue), 47-64 pp (<http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/garzia>) (beste 4 artikululu ale berean)
- ✓ 2004, “Ahozkotasunaren mapa zabalduz”, in *Ahozko inprobisazioa munduan / Oral improvisation in the world* (Meeting minutes), Donostia, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, 47-55.

- ✓ 2004, (Kike Amonarriz eta Andoni Egañarekin batera), *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarak /La calidad del euskara. Objetivos y razones de una definición necesaria* (Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzerdearen enkarguz egindako lana)
- ✓ 2002, *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*,. (Jon Sarasua eta Andoni Egañarekin batera), San Sebastián, Bertsolari/Bertsozale Elkarte.
- ✓ 2002, “Finalaren mataza harilkatzen”, in Bertsozale Elkarte, 2002, *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa 2001*, Donostia, Bertsolari Liburuak,
- ✓ 2000, “El bertsolarismo, del siglo XIX al XXI”, in URKIZU, Patri (director), *Historia de la literatura vasca*, Madrid, UNED, pp. 402-480.

Itsaso Arrieta (Labayru)

Itsaso Arrieta (Labayru)

-Labayru ikastegian, UEU-n eta beste zenbait erakundetan hainbat ikastaro. Haurtzaindegietako hezitzaileentzako haur kantu eta jolasen ikastaroak. Hezkuntza saileko Berritzeguneetan hitzaldiak herri kantuen inguruan.

-Oskorri taldeak grabatu zuen “Katuen testamentua” egitasmoaren ideia eta lanketa; diskoa eta liburua.

-Udalerrri ezberdinetan burututako proiektu zenbaiten aholkularitza haur katen alorrean.

-Labayruk argitaratutako “Urte sasoiak” bildumako kolaboratzailea.

Leire Diaz de Gereñu (EHU)

Leire Diaz de Gereñu, Euskal Filologian Lizentziatua, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da gaur egun, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailean.

"Hizkuntzaren ikaskuntza, jabeakuntza eta erabilera" (HIJE) ikertaldeko partaidea da.

Doktorego-tesia idazten ari da unibertsitate berean, Itziar Idiazabalen (EHU) eta Luis Mari Larringanen (EHU) zuzendaritzapean, kontalari garaikideen berbazko jardunen ezaugarritze linguistiko eta diskurtsiboa eginez. Azken urteotan irakasleen etengabeko prestakuntzan ere aritu da, ahozkoaren irakaskuntzaren arloan nabarmenki.

Itziar Elorza (Ikastolen Elkarte)

Itziar Elorza Alday, euskal filologian lizentziatua izanik, bere ondorengo ibilbide akademikoa zein profesionala hizkuntzen pedagogiaren inguruan egin du. Ikastolen Elkartean lan egin du 25 urtez, eleaniztasunarekin eta hizkuntzen trataerarekin zerikusia duten prozesuetan (Eleanitz proiektua: ikasmaterialen sorkuntza, irakasleen prestakuntza, ikasleen ebaluazioa; ikastolen Hizkuntz Proiektua...). 2004tik 2011ra Ikastolen Elkartearen Hizkuntz Proiektuaren arduradun izan da.